

## A. TXANTON GOIRIA MUNIOZGUREN

*Arrateko zelaian bazkaldu eta bazkalostean zirikatu egin zituen A. Leon eta A. Txanton kantuan norgehiagoka jarduteko. A. Txantonek bere abalegintxuak egin zituan: “Urrundik”, “Ara nun diran”... A. Leon, ostera, isilik geratu zan. Adarra jo nahi eutsiela sumatu eban. Bera, baritono ikaragarria, zelan jaitsiko zan, bada, Txanton Goiria lako baten mailara, nahiz eta hau Kolonbian baritono on-ontzat izan sasoi baten? Dana dala, umore onean igaro zan gure bazkalostea.*

Idazten dihardudan neure gomuten ataltxuaz hasi nahi izan dot gure karmeldar ospetsuaren irudia berregiten. “Ospetsua”... Ez dakit lortuko eban bere ametsa egia bihurtzea. Gure artean bai eta Eibar aldean be bai, beharbada. Gaztetan “ospetsua” izateaz amets egiten ebala entzun dogu eta berba hori sarri aitatzen ebana badakigu, silabak ondo markaturik eta era adierazgarrian, aitatu be. Hiru *-lari* agertzen dira harek bere buruarrentzat amesten zituan idealen artean: abeslaria, sermolaria eta olerkaria. Txanton Goiriari buruz berba egitean beste *-lari* bat gehitu ohi eben hurretik ezagutu ebenak: ameslaria. Bai, ameslaria eta erromantiko samarra zan, baina esanahirik onenean.

Aurten haren jaiotzaren mendeurrena dala eta, gogora ekarri nahi izan dogu eta *Kamelen* irakurleekin batera omenaldi-txua egin Kortederrako (Galdakao) seme argiari.



*A. Txanton familiartekoekin.*

Kortederra auzoak erakargarria izan behar dau, hiru udalerri haren zati bana lortzera lehiatu ziran eta. Galdakao, Amorebieta-Etxano eta Larrabetzu udalerrien artean banaturik dago Kortederra. Txanton Goiria teologiako ikasle zala joan zan Kolonbiara. Medellinen amaitu zituan Teologiako ikasketak. Abade egin barri, Medellinen bertan meza barria emon ebanean, Kortederrako beste auzotar batek, A. Zirilo karmeldarrak (Jose Maria Mugarza Ortuzar) egin eban sermoia eta holan hasi ei zan esaten: “En este momento solemne, vamos a evocar las grandezas de Kortederra”.

Goazen, labur bada be, haren bizitzako unerik garrantzitsuenak gogoratzeraz:

Kortederran (Galdakao) jaio zan 1908ko urriaren 25ean. Beraz, aurtan 100 urte beteko zituan bizi izan balitz. Gurasoak Faustino Goiria eta Frantziska Muniozguren. Bere auzoan hasiko zan eskolara, baina laster, 10 urte zituala, 1918an, Larreako Karmeldarren ikastetxean sartu zan. Han osotuko zituan lehenengo ikasketak, giza zientziak. Inguruko herrietatik eta urrunagotik be, Larreako ikastetxe haren ospeak erakarririk edo,



*A. Txanton familiartekoekin.*

gurasoak harantz bideratu ohi zituen mutiko asko. Han sartzeak berez ez eban esan nahi guztiak edo gehienak karmeldar izango ziranik, baina Jose Antonio Goiria mutikoak karmeldar izan nahia sumatu eban bihotz barruan, eta 15 urte zituala, abitua hartu eban ikastetxetik metro gitxira egoan Karmeldarren nobizio-etxean (1924). Hurrengo urtean, 1925eko uztailaren 8an, profesia egin eban.

Markinan igaro eban ondorengo urtea, profesadunak Filosofia hasi aurretik igaro ohi ebena. Gasteizen Filosofiako hiru urteak osotu eta Begoñara joan zan Teologiako ikasketak egitera, baina han egin ohi ziran lau urteetatik lehenengo biak egin zituan bakarrik. Profesia nagusia Begoñan egin eban 1931ko ekainaren 27an. Urte berean Errepublika sortu zan; horregaitik, giro politiko eta sozial irakin eta gorabeheratsua sumatzen zala-eta, nagusiak Teologiako bigarren urtea amaitu barriak Kolonbiara bidali zituen, han giro bareagoa izango zalakoan...

Leivan egin eban Teologiako hirugarren urtea eta diakonotzako Ordena hartu eban. Laugarren urtea egitera Medellinera

joan zan; bere ikasketak buruturik, abadetzako sakramentua hartu eban 1933ko urtarrilaren 29an Liberio Salazar Medellingo Gotzainaren eskutik, Moja Karmeldarren elizan.

Bere lehenengo komentua, abadetzeta hartu ondoren, Frontinokoa izan eban. Apostolutzan han egin zituan bere lehenengo ahalegintxuak eta Uramita izeneko herritxuan parroko karguan igaro zituan urte bi. Handik Bogotako San Kristobal Parrokiara aldatu zan eta geroago Santa Teresatxurenera. Bogotan aitaturiko parrokia horreetan hiru urte egin ondoren, Medellinera bihurtu zan, abadetzako Ordena hartu eban hirira. Beste hiru urte igaroko zituan hemen. Palmira eta Sonson izango ziran A. Txantonen hurrengo destinoak eta, azkenik, Frontinon izango dogu bigarrenez, bertako nagusi eta parroko. Kolonbiako komentu horreetan, gehienbat, gure elizetan ohikoak ziran kofradia eta kristau-elkarteen zuzendari izatea egokitu jakon.

Kolonbian 16 urte egin zituan guztira. Gaztetako eta abadetzako lehenengo urteak. Beste misiolari euskaldun bati entzuna dot, gaztetan Ameriketara izan diranei bihotzean sartzen jakela lurralde ha eta hona etorrita gero be sarri sumatzen dabela itsasoa barriro zeharkatzeko joeratzua. A. Txantonek ez eban holakorik erakutsi, nik dakidala. Bestera; han egoala herminak jo eban eta honako gogoak ez eutsala baketan izten esan eikean. Eta itzuli zan bere Euskal Herri maitera. Oraindino gaztea zan eta onenak emoteko egoan. 1946an hona etorri zanean 38 urte zituan. Larrean urte bi, 1946a eta 1947a. Ez dogu urte bi horreetako barri handirik. Nobizio-etxea zan Larrea, baina baita inguru osoan entzute handia eban santutegia be. Santutegian egiten zan liturgia, elizkizunak, bertan ziran kofradia eta kristau-elkarteez gainera, inguru zabala hartzen eben Larreako karmeldarrak apostoluzta egiteko: Garizumako gogojardunak, misioak, herri eta auzoetako jaietako sermoiak, egun berezietako hitzaldiak... Bizkaiko parrokia askotatik heldu ohi jakezan deiak eta batez be inguruko edo hurreko herri eta auzoetatik. A. Txanton sasoi-sasoiko zan eta ahaleginak egingo

zituan, santutegian eta kanpoan, konpromiso horreei guztiei erantzuteko.

*Karmengo Argia, Karmengo Amaren Egutegia eta Karmel* aldizkariekin izan eban lotura edo zerikusia geroago ikusiko dogu, A. Txanton Goiriari idazle zan aldetik begiratzean.

Larreatik Begoñara bidali eben. Zazpi urte, 1948tik 1955era, batez be gazteen arteko apostolutzari emonda. Karmeldarren komentu batzuetan, esaterako, Donostian eta Begoñan, bazi-ran erlijiosoen gidaritzapean eraturiko gazte-taldeak. “Juventud de Carmelo y Praga” izenez ezagutzen ziran gure artean. Katekesia eta erlijio- eta kultura-formazioa izan ohi zan talde haren helburua. A. Txantonek buru eta bihotz lan horretan sarturik jardun eban eta kultura-arloari garrantzi handia emoten eutsan. Holan “Gaztedi” dantza-taldea sortu eban 1951n eta, besterik ezean –euskera eta beste gauza batzuk debekuplean egozan eta– folklorea indartzera jo eban. “Gaztedi”ren urrezko ezteguak ospatu ziran 2001ean. Hori dala eta, Joseba Arrietak idazlan bat idatzi eban *Karmel* aldizkari honetan, bera be protagonista izaniko hasiera hareek gogoratuz. Hona aldatuko ditut idazlan haren hainbat atal:

*1951garren urtean Franco diktadorea bere sasoirik gogorrenetan egoan. Bere amorru bizian Euskal Herria egoan baino zapalduago euki nahi eban; zapalkuntza horrek iraun egian abalegin guztiak egiten ebazan.*

*Hurrengo hamarkadan gertatu zan moduan, berrogeita hamarreko hamarkadan bere, Eleizaren babesaren behar-beharrezko izan zan gure Herriaren aldeko zer edo zer egiteko. Atara kontuak, euskaraz egitea debekatuta, umeak bataiatzerakoan euskarazko izenik jartzea bere debekatuta. (...)*

*Holako giro baten sortu zan Gaztedi Dantzari Taldea. Giro gogorra zan eta inor gitxik uste eban aurrera jarraituko ebantik. Inor gitxik, esan dot, baina sinisten ebenen artean bere sortzaile zan Aita Txanton karmeldarra dogu.*

*Berak sortu eta batu ebazan behar ziran bitarteko guztiak. Gazteak batu, irakasleak aurkitu, eta aktuazinoak lortu.*

*Gorago aitatu dodan giro horretan ez zan bape erreza aurrera ateratzea, baina Aita Txantonen adorea agortu ezinezkoa zan, beti Gaztediren alde.*

*Behin baino gehiagotan esaten eustan: momentu bonetan boneri, folkloreaki, eutsi behar deusogu, eta gero bizkuntzari, euskerari, ekingo deusogu. Inork ez daiala pentsatu, gauzak esan eta geldo egoteko zanik; ekintza gizona zan. (...)*

*Taldea sortu zan, baina gero aktuazinoak behar ziran, bestela porrota ganean egoan. Agintarien aldetik ezin ezer espero eta zelan edo balan aktuazinoak topatu behar.*

*Horretan bere Txanton nagusi; sermolari ona zan, bildurrik gabekoa eta jendeak zer edo zer entzun gura; horretarako zein, Txanton baino hobea? Hori zala-eta herri askotatik deitzen eben jaietako sermoia egiteko. Berak baldintza bat jarri: beragaz batera Gaztedi Dantzari Taldea. Eta askotan bai lortu bere bere asmoa. Hor ibiltzen ginan Txanton sermolari, eta Gaztedi dantzari. Pinu punta baten ganean dantzatu behar bazan bere Txanton ez zan ikaratuko: –nire mutilak hortxe bere dantzatuko dabe. Inoiz ez atzerantz.*

*Holakoxea izan zan hasiera eta hortik etorri zan Gaztediren geroa. Gero luze eta oparoa, katea eten gabe gaurko eguneretara heldu arte. Berrogeita hamar urte holako erakunde baten zatitza gixitan lortzen dan muga da. Baina, zorionez, oraingo bonetan ez da mugarik, aro baten amaiera eta aro barri baten abiapuntua baino<sup>1</sup>.*

1955ean Eibarko komentura bidali eben eta han bizi izan zan 1990ean hil zan arte. 35 urte; bada zerbait. Eibartarrekin be, Begoñako gazteekin legez, oso ondo konpondu zan. Jen-

<sup>1</sup> Arrieta, Joseba. 50. Urteurrena 1951-2001 Gaztedi Dantzari Taldea; Karmel. 2001-4; 58-62.

dea maitasunez eta gozo hartzen ebana zan. Eibarren Santa Teresatxuren Deboziozko Elkartearen (Pía Unión de Santa Teresita) zuzendari izan zan eta 1963a ezker, Karmengo Kofradiaren zuzendaritza hartu eban bere gain. Komentuko idazkari eta kronista. Kolonbian misiolari izan zan-eta, gar hori bihotzean eroian. Karmeldar misio eguna berariazko eran prestatu eta ospatu nahi izaten eban. Egun horri bere zera emotearren, ahal zituan baliabideak erabiliko zituan. Esaterako, 1960ko hamarkadan, 1964, 1965 inguruan Begoñako teologo euskaldunak, diakono ordenatuak ziranak, eroan ohi zituan egun horretan mezetako homiliak egitera. Karmeldarren elizan eta San Andresen be egiten zan Karmeldar misio eguna. Gogoan dot, hiru diakono edo, hitzaldia buruz ondo ikasita, han izan ginala 1965eko misio egunean. A. Txantonek laster misioetara joango ginan gazte karmeldar legez aurkeztu ginduzan eliztarren aurrean. Horregaitik, entzuleentzat barri pozgarri eta bizigarria izan ohi zan gu han ikustea. Egia esan, batzuk joango ziran misioetara. Gure aurreko urtekoetatik Malawirako asmotan ziranak aukeratu zituan misio-egunerako. Beste batzuk, barriz, hemen geratu ginan...

Eibarren eta inguruetan, batez be Arrate aldean, txapela buruan ondo jarrita eta motozikletaz gogoratzen dabe gure karmeldarra. Motozikletaz inguruko errepideetan ez eze, Errioxa alderaino be joan ohi zan. Egin-eginean be oporrak Errioxan igaro ohi zituan gehienetan.

A. Txanton Goiriaren zaletasun ezagunenetariko bat bidaiatzea zan. Sarri eratu ohi zituan erlijio- eta kultura-bidaiak bere ardurapeko eliz taldeekin. Sasoi baten ohikoa izaten zan karmeldarren elizetan eraturik egozan kofradia eta kristau-taldeak erromesaldiak edo erlijio-turismotzat hartzen diran bidaiak egitea. Gure Txanton zalea zan bidai horreek eratu eta gidatzen. Markina-Xemein inguruan ospetsua zan horretan Julian Olazabalaga abadea be. Honi entzun neutsan Britainia Handira edo joan zala behin hemengo talde batekin eta han Eibartik joani-

ko talde batekin aurkitu zala; A. Txanton Goiria zala talde honen buru eta *Gora Euskadi* deidiarrez agurtu zituala... Paulo VI.a Aita Santuarekin eginiko argazki dotorea gordetzen eban Zornotzan bizi zan bere familiaren etxean. Erromara eginiko erlijio-bidaiaren baten oroigarria izango zan, ziur asko.

## **Euskal idazlea**

Euskaltzale handia genduan; oso gazte zala hasi zan bere luma trebatu nahian ahaleginean. Esaterako, Markinan ikasle zala, 16 urterekin, Donostiako *Euskal-Esnalea* aldizkarira bidaltzen zituan noizbehinka bere idazlanak, “Aita Urbano Manzisidor, Lemoako seme abertzale zintzoak saka eraginda” dino Santi Onaindiak *Bizkaiko Olerkariak* liburuan. Geroago, baina oraindino ikasle zala, Gasteiztik eta Begoñatik Bilboko *Euzkadi* egunkarian idazten jarraitu eban, baita Larrean hasi barri zan *Karmengo Argian* be. Julen Urkizak, Antonio Unzuetak eta Angel Fdz. De Mendiolak elkarlanean idatziriko *Provincia Carmelitana de San Joaquín de Navarra. Carmelitas en Euskal Herria* liburuan 560-563 orrialdeetan Karmeldarren euskal aldizkariak agertzen dira eta hareei buruzko hainbat zertzelada: *Karmengo Argia*, *Karmen igo Amaren Egutegia*, *Karmel* eta *Olerti*. Lehenengo hirurak, izenez ez bada izatez, aldizkari bera dirala esan geinke. Izen aldatze horreek diktadurapeko debeku eta ixteei ihes egitearren ziran. Aitaturiko liburu horretan, *Karmengo Argiaren* hasierak agertu ondoren, hau esaten da:

*En los números siguientes se fue enriqueciendo [Karmengo Argia] con relatos y noticias de Colombia (P. Nicolas Batiz, P. Goiria, P. Ander), Perú (P. Balendin Abasolo, P. Mateo, P. Eloorrieta), Chile (P. Atutxa), etc. Y de los que estaban en Euskal Herria comenzaron a escribir los que después serían famosos escritores vascos como Santiago Onaindia, Lino Akesolo, etc.*

*Esta revista mensual llegó a tener 4.000 suscritores, con la cuota anual de tres pesetas.*



*Karmengo Argia*, Larrean 1931n A. Martin Uriarteren zuzendaritzapean argitaratzen hasi zana, gerrak iruntsi eban, gerra aurreko beste hainbat ekinbide eder legez. Gerra ostean ezin jarraitu izan zan aldizkaria ateratzen. Azkeneko zuzendaria Lino Akesolo izan zan eta gerra-auzi sumarisimoan *Karmengo Argia* aldizkariaren zuzendari izatea egotzi eutsien delitutzat. Auzitegiko epaileak “Karmengo Árjia” ahoskatzen ei eban; halan kontatzen eban berak umorez. Baina une haretan ez zan umorerako abagunerik izango...

Aldizkarian idazten eben askok kartzelan igaro behar izan zituen urte batzuk eta kartzelatik askatuak izan ondoren be ez eben askatasun osorik izan, falta zan pena Bizkaiko eta Gipuzkoako komentuetatik kanpo Kantabrian, Errioxan edo Nafarroan bete behar izan eben-eta. A. Santi Onaindiak, Kantabriako Hoz de Anerotik Larreara joan zanean, 1951n beste lagun batzuekin batera, Karmen’go Amaren Egutegia argitaratu eban; urtekaria zan, baina hori aldizkaria ateratzeko disimuluzko pausoa baino ez zan. *Karmel* aldizkaria zan euskaltzale fin hareen jomuga. Hareetariko bat zan A. Txanton Goiria. Ordurako Euskal Herrian zan, Begoñan, eta badakigu urtekariaren eragile eta euskarrietariko bat bera zala. Goian aitaturiko liburuan hau dator:

*Los impulsores de la revista eran el P. Santi Onaindia, P. Goiria y el P. Livino Duñabeitia.*

*Karmel* izenez argitaratzen hasi ondorengo hamarkadetan be, 1970era arte, aldizkariak ez eban ibilbide errazik izan. Etenaldiak izan zituan, debekuak zirala-eta.

Karmeldarren aldizkarietan, hau da, *Karmel* eta *Olerti* aldizkarietan, argitaratu ziran A. Goiriaren lanik gehienak, baina esana dogu gazte-gaztetarik hasi zala idazten. Berak Ordenako nagusiei bere bizitzaren barri emoteko idatzirikoan, beste gauza askoren artean, hau dakar:


*Sin descuidar la predicación, me he dedicado con todo cariño al cultivo de nuestra lengua euskara tanto en América co-*

*mo en la Provincia. Siendo profeso en Markina obtuve un “acésit” en un certamen que presentó “EUSKALERRIAREN ALDE”.*

Honetaz eta geroago hainbat aldizkaritan eginiko lanaz pixka bat gehiago be badakar A. Santi Onaindiak:

*Aldizkari bonen [Euskal-Esnalea] sariketak zirala-ta, ipuñak eta olerkiak bialtzen zitun aietara. Ameriketatik zebillela “Jaungoiko-Zale”n, “Karmengo Argia”n, “Ekin”en, “Euzkadi”n eta “Euzkerea”n behintzat idatzi zuen. Gerra ondoren, berriz, “Euzko-Gogoa”n, “Euzko-Enda”n, “Egan”en, “Goiz-Argi”n, “Anaitasuna”n, “Karmengo Amaren Egutegia”n, “Karmel”en, “Olerti”n, “Agur”en eta abar<sup>2</sup>.*



Aldizkarietan esku hartzeaz gainera, liburuak be idatzi ditu A. Txantonek. Sei argitaratu zituan eta beste bat be prest eukan baina ez zan argitaratu. Arrate Irratitik emoniko hitzaldi-




<sup>2</sup> *Euskal Literatura* (VI). Etor Argitaletxea, Donostia (187. or.)

sorta luze samarra da hau, *Sinismena eta Agerpena* izenekoak. Berak ondoen menderatzen dituan gaiak darabiltza liburuotan: erlijio-gaiak, *Gernika'ko Arbola* teatro-lanean izan ezik. Bai liburuetan eta bai aldizkarietan argitaraturiko idazlan ugarietan bere bi maitasun handi hartzen dituala kontuan esango neuke: erlijioa eta euskera. Hona hemen, liburu honeen izenburuak:

- 1) *Berrio-Otxoa'ren Bizitza* (Bilbao, 1952). 96 orrialde. Domingotarrak argitaratua.
- 2) *Karmen'go Eskapularioa* (Bilbao, 1953). Gráficas Bilbao. 199 orrialde.
- 3) *Fatima'ko Ama Birjiña* (Bilbao, 1955. Gráficas Bilbao. 260 orrialde.
- 4) *Goi-Bidez* (Bilbao, 1969) Gráficas Bilbao. 423 orrialde.
- 5) *Kristoren Eliza* (Bilbao, 1971). Gráficas Bilbao. 259 orrialde.
- 6) *Gernika'ko Arbola* (Bilbao, 1983) 36 orrialde. Teatro-lana.





*Berrio-Otxoa*´ren Bizitza badakigu maite eban gure karmeldarrak. Aldizkarietan ordurako asko idatzia zan, baina liburuaren artean haxe eban bere lumaren lehenengo emaitza. Biografia liburua; liburu txikia, baina atsegina; maitasunez egina; Bizkaiko martiri dohatsua –gaur egun santua– bihotzean sartua eukan. Santua izanez gainera euskaltzalea zalako, ziur asko.

Egin-eginean be, Berrio-Otxoak Manilatik amari eginiko eskutitzak datoz biografia honetan eta kritika euskaldunak hori azpimarratu eta estimatu dau beste alde guztien gainetik. Izan be, munduan zehar ibili diran gainerako santu euskaldunen luman nekez aurkitzen dogu euskerarik, Mikel Garikoitz eta Balendin Berrio-Otxoarenean izan ezik.

*Fatima 7ko Ama Birjina* liburuaz zertzelada bat edo beste agertu nahi neuke. Ez da inorenetik kopiatu eta euskerara itzulirik egina. Jakina, gauzak ez dira ezerezetik egiten eta liburu honetan be handik eta hemendik harturiko atalak badira, baina Egileak bertatik bertara arakatu zituan Fatimako Ama Birjina agertu zanekeo bazterrak, baita bizirik egozan protagonistak bisitatu be. Honeen artean Frantzisko eta Jazintaren gurasoak eta Luzia bisitatu eta hareekin elkarrizta luzeak izan zituan. Liburuko argazkiak ez dira onak, baina bai balio handikoak, testigantza grafiko garrantzitsuak diralako. Ideia hori azpimarratzen dau A. Migel Mariak, *Dundun-zar* azkoitiarrak, idazleari bigarren pertsonan zuzenduriko "itzaurre-ordea"n:

*Gaia, goxotasun-ertzia berez darion Fatimako Ama Birjiñatza azko gaia, geien batzuentzat ezaguna eta gauza jakiña dan arren, zerori lurralde aietan ibilia izateak eta kondaira ukigarri orretan parte artutako notiñ garaienak arpegiz arpegi eza-gutu eta berekin alkar-izketa adiskidetsuan egondu izateak, lengo ixtori ederrari mendu berria-edo txertatzen dio.*

Gorago egin dogu haren idazlanak ageri diran aldizkarien aipamena. Aldizkarien zerrenda luzea da eta hareetariko baikoitzean idatziriko lanen zerrenda luzeagoa. *Karmel* 2008-3 alean bibliografia osoa esku-eskura dogun ezkerok, kontatu egin ditut Kortederrako idazlearenak. 90 izenburu dira guztira; 71 lan prosazkoak eta 19 bertsozkoak.

## Olerkaria

Hasieran agertu dogunez, A. Goiriaren gaztetako hiru amets edo hiru *-lari* haren artean olerkaria izatea sartzen zan: *Sermolaria*, *abeslaria* eta *olerkaria*.

A. Santi Onaindiak egoki adierazten dau olerkariaren inpirazioa nondik norakoa dan; egin-eginean be, Txanton Goiriari jagokon atalaren sarreran honako hau dakar:

*Danok daroagu emen barruan zer dan ez dakigun “zer” ixil bat. Orrek dardar dagianean, or poema baten asiera. Arrotz bazabiltz, edo erri-miñezko naigabez, barne-zirkin ori errezago da nabari. Adi orduan, olerkari; or dozu zerbaiten erne-naia, illunetik argiaren billa daukazun zerbait<sup>3</sup>.*

Kortederrakoaren olerki bi aukeratu eta aldatuko ditut hona, haren olerki-joera agertzen dabelakoan. Biak olerki erlijiosoak dira; bigarrenak atzerrian izan zaneko herrimina eta hona itzul-tzean gerra ostean aurkituriko egoera negargarria agertzen ditu. Hirugarren bat be hautatu neikean, esaterako, *Urrutiko agurra*, Kolonbian zala herriminak eraginiko olerkia, baina luzeegia da honako. Lehenengoa, Karmengo Amari eginikoa, eliz kanta bihurturik dago; une honetan ez dakit musika norena dan, A. Jose Domingoren musika-lanen zerrendan ez da ageri-eta:

### ***Karmengo amari***

Zeru goi-goitik Karmengo Amak  
beti beriak zaindu ditu;  
berak zaintzea gura badozu,  
zindo maitatu egikezu.

Karmengo mendirantza,  
itsaso barrutik,  
odei zuri urtsu bat  
etorri zan goitik;

Jaunak bialdua zan,  
Amaren aurretik,  
au be urtuko zalako  
errukiz gugaitik.

<sup>3</sup> *Bizkaiko Olerkariak* (Bilbao, 1990; 233. or.)

***Nire azken kantua***

Jaungoikoak jarri nindun ni ludian,  
pozik bizi nendin gizonen artian;  
bere antzeko egin nindun  
izaki gogodun ta soindun.

Beti izan dot neugaz Jaunaren eskua  
beti neugaz bere kerizpe gozua;  
txiki eta gazte nintzala  
beti ikusi dot bere itzala.

Aberri ederra ta sendi maitia,  
izan dira egiz nire jatorria;  
Jauna nigaz maitaro  
agertu izan da aldi oro.

Gaztetxo nintzala egin eustan deia,  
beingo baten itxi neban nik ludia;  
apaizgo-bidea nun artu,  
Karmeldar Anaidian sartu.

Aberritik urrun jun nintzan gazterik,  
biotza oso-osoa samindurik;  
Jainkoaren naia ikusita,  
beingoz ni jun dan itxita.

Urte asko egin nitun atzerrian  
Jaungoiko-artzain lez arimen atzian;  
gogotsu mixiño-lanian,  
naizta izan biotza Aberrian.

Pozik nintzan gero Euskalerriratu,  
neure maiteekin barriro alkartu.  
Katekin lotuta Aberria  
aurkitu nun dana jausia.



Betiko etsaiak gogorki artuta  
 semerik askok aztuta, salduta;  
 egoera bai baltz-illuna,  
 etorkizuna oso ituna.

Jaungoikoagandik guztiz aldentuta,  
 anaien artean oso bananduta;  
 Aberri-miña dot barnean,  
 samin-negarra biotzean.

Bizia bai latza! Benetan mergatza!  
 oiñazez eta itun zauritua natza.  
 Eldu jat zartzaro garaia  
 euskaldun onen amaia.

Sor-azo ninduzun, Jaungoiko aundia:  
 pozik dot onartzen Zuk erabagia.  
 Ar naizu zure ederrean,  
 beti-betiko atsedenean.

### **Azken letratuak**

Ibilaldi arina egin dot Txanton Goiriaren biografian zehar: Kortederra, Larrea, Markina, Gasteiz, Begoña, Kolonbia, barriro Larrea eta Begoña eta, azkenez, Eibar: A. Txantonen azken egoitza, gaztetatik zahartzarora arteko haren sekretuak gordezten dituana.

Bizitzako zertzeladak, datak, bibliografia etab. gauza hotzak dira. A. Txanton Goiriaren bizitza gizatasun-ikutuz jantzi nahi neban. Horretarako, Eibarko Karmeldarretan urte luzeetan bizilagun izan eban Jesus Unamuno (gure artean Jabier) aulestia-rragandik jaso ditut ondorengo kontu politikak:

Kolonbian urte asko eginik hona itzultzean, Madril-Barajas aireportuan aita eukan zain; besoak zabalik besarkatzera joiala,



*¡bijo mío!* –esan eutsan aitak. Txantonek erantzun: *–Aita, barrero hijo mío erderaz esaten badeustazu, hartu berton abioia eta banoa Kolonbiara!*

Sarri entzun izan deutsalgu esaera hau: *Gu Goiriatarrok barrantoak gozak, baina badogu zergaitik barrotu be!*

Txanton ospetsu egin zan bere movilette motozikleta gainean alde batetik bestera ibiltzen. Behin Iruñeraino joan zan eta han kale batetik joiala, tope egin eban guardia zibil batekin eta biak hankaz gora jausi. Handik egun batzuetara zirika esan neutsan: *–Txanton, baina zelan jo leitekek motorraz bolako bat?* Berak: *–Holakoren bat ikusi ezkerro, ni itsutu giten nok...*

Behin Donostiako Karmeldarretan zan A. Txanton bazkalitzen. Isilik eta aurrean eukanera adi. Albotik fraide bat zirika hasi jakon. Hau arabarra eta erdelduna zan. Txantonek, ezer esan ez baleu legez, jaten ziharduan isil-isilik. Bestea baina bere teman... Halako baten, burua jaso eta esan eutsan Txantonek: *–No digas necedades...!* Eta jaten jarraitu eban serio.

Nik dakidala bost liburu zituan idatziak Txantonek: Berrio-Otxoaren Bizitza, Karmengo Eskapularioa, Fatima 1ko Ama Birjiña, Goi-Bidez eta Kristoren Eliza. Harro esaten eban: *Ni bost semeren aita nok eta azkeneko biak bata bestea baino mardulagoak.*

A. Txanton 1990eko abenduaren 12an hil zan Gasteizen. Egun asko eroiazan Txagorritxuko ospitalean. Gu hemendik, Eibartik, bisitatzera joaten ginan. Behin esan eustan ikusiaz batera:

*–Jabier, automobilean etorri haz?*

*–Bai* –erantzun neutsan nik

*–Orduan eugaz etxera, Eibarrera, noak!* –Txantonek.

*–Zelan eroango haut, ba, ospitalekoen baimen barik?* –nik; *eta, gainera, hau be Euzkadi dok eta hemen ondo hago.*

*–Ez dok bardin...!* –erantzun Txantonek.

Beraren urtebetetzean neuk abesturiko bertsoaz amaituko dot:

*Kristoren barri ona  
zabaltzen munduan  
asko ibili zara  
bai hemen eta han  
baina gure Herria  
beti bibotzean  
euskera mintzatuaz  
toki guztietan  
bontan izan zaitugu  
euskaldun benetan.*

(Jesus Unamuno)

*Luis Baraiazarra Txertudi*